

Mondragon Unibertsitateko ikasleak Ganteko Unibertsitatean

2016/03/16

Ganteko Unibertsitateak (Belgika) ikastaro trinko bat antolatu du. Ikasketa programa motz bat da, Europako goi mailako hezkuntza erakundeetako ikasle eta irakasleak parte hartzen dutena.



Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterreko ikasle eta irakasleak aste bat pasa dute Kortrijk-en (Belgika) Europako beste unibertsitate batzuetako 150 ikasleekin batera kirola eta ongizatearekin lotutako proiektuetan lanean.



Europako unibertsitateak ez dira izan parte hartu duten bakarrak, Kirolaren eta Ongizatearen arloko enpresak ere egon dira bertan. Produktu eta/edo produktu-zerbitzu sistema esanguratsu, adimentsu eta iraunkorrek sortzeko ideiak berriak eskuratzea izan da horien helburua.



Ikasleek diziplina anitzeko lantaldeetan aritu dira enpresek planteatutako erronkei erantzuten. Industria diseinuko, terapia okupazionalako, Kirola eta Osasuneko eta Arte Digitaleko diziplinak

uztatu dituzte. Erabiltzailearekin batera sortzea eta prototipatua izan dira metodologia erabilienak, jarraitu den prozesuari esker ideiak erabiltzaile potentzialak probatu ahal izan dituzte eta horiek duten onarpena landu.



Ekitaldi honetan parte hartzeak diziplina anitzeko nazioarteko ingurune batean lan egiteko aukera eskaini die ikasle eta irakasleei, eta bere aldetik, Mondragon Unibertsitateak Europako beste unibertsitate batzuetan harremanak landu ditu.

